

## ALKATEAREN DEKRETUA, BIZIKLETAK ETA BESTELAKO ZIKLOAK OINEZKOEN ALDERDIETATIK IGAROTZEKO ORDUTEGIA ARAUTZEKO.

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren 23. artikulua dioenez, arau orokor gisa, debekatuta egongo da ziklo eta bizikletekin oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzea. Nolanahi ere, salbuespen gisa, kasu hauetan baimenduta egongo da:

- Oinezkoen zenbait alderditan, ordu-tarte jakinetan. Alkatearen dekretua dela medio finkatuko da alderdi horien zerrenda, segurtasuna, oinezkoen mugikortasunarekiko bateragarritasuna eta espazio publikoen egokitasuna aintzat harturik.
- Espazio horietatik kanpo, oztoporik gabeko 3 metrotik gorako zabalera duten oinezkoen gainerako espazioetan barrena, salbu eta bertan ziklistentzako bide bat badago, zirkulazio abiadura orduko 30 km edo gutxiagora mugatuta badago edo Zirkulazio Araudi Orokorraren 159. artikuluan araututako seinalearen bitartez egoitza-kale gisa seinaleztatuta badago.
- Ziklista 14 urtetik beherakoa denean. Halakoetan, nagusi batek edo gehiagok joan ahal izango dute adingabearekin batera.
- Zikloa gidatzen duena mugikortasun murriztua duen pertsona bat denean. Halakoetan, pertsona batek edo gehiagok joan ahal izango dute mugikortasun murriztua duen pertsonarekin batera.

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren 10. artikuluan deskribatzen direnak dira oinezkoen alderdiak.

Ordenantza horren 10.8 artikulua arabera, oinezkoen alderdietan jarritako mugetako batzuetatik edo zenbaitetatik libre utzi ahal izango dituzte udal agintariek ibilgailu jakin batzuk, horretarako arrazoirik izanez gero; bereziki, pertsonak garraiatzeko bizikleta eta trizikloak, eta mezularitza- eta publizitate-zerbitzuenak.

Ordenantzaren 12.1 artikulua arabera, zenbait kale eta eremutan, salgai jakin batzuk banatzeko eta ordutegi jakinetan, ibilgailu mota bereziak bakarrik erabili ahal izatea erabaki ahal izango du udalak, lehentasuna ematen diolarik beren ezaugarri teknikoengatik eta propulzio sistemagatik ingurumenean eraginik txikiena —emisioak eta zarata— duten eta bide publikoan lekuri gutxien hartzen duten ibilgailuen erabilerari. Alkatearen dekretua dela medio zehaztuko dira halako kale eta eremuak, edo horiek aldatu nahiz zabaltzea xedatuko, eta orobat ezarriko zer motatako ibilgailuak egongo diren baimenduta bertan. Baimendutako ibilgailuek zabalera egiten ari diren bitartean baino ezin izango dituzte okupatu horretarako erreserbatutako eremuak, eta, beraz, legez kanpoko erabileratzat joko da horiek delako lan horiek egiteko ez bestetarako baliatzea. Nolanahi ere, baimendutako ibilgailuaren titularrak edo hura alokairuan hartua duenak Ekonomi Jardueren gaineko Zergan izena emanda egon beharko du.

Segurtasunari eta espazio publikoaren beste erabilerekiko bateragarritasunari buruzko irizpideak aintzat harturik —ziklisten mugikortasuna erraztea helburu, eta orobat araudia Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren markoan hirian salgaiak banatzeko bultzatzen ari den eredu berrira egokitzea—, kontrako seinalerik izan ezean, hau

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatuaren osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código Seguro de verificación(CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA - NIF/IFZ P-0106800F		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru)</b> <i>CSV(Código seguro de Verificación)</i>	XF6C6IWLBYU243B3FU3TVDLBN4	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	24/02/2016 07:24:54
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>IZENPE.COM</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	1/2
 XF6C6IWLBYU243B3FU3TVDLBN4			

## XEDATU DUT

LEHENA.- Bizikleten eta zikloen zirkulazioa baimentzea kale eta plaza hauetako oinezkoen alderdietan barrena:

- Espainia plaza / Plaza Berria
- Andre Maria Zuriaren plaza
- Agirre Lehendakariaren kalea
- Gernikako Estatutuaren kalea
- Loma Jeneralaren plaza
- Urrezko Zeledonon plaza
- Posta kalea, Bake kaletik Prado kaleraino
- Independentzia kalea, Foru kaletik Urrezko Zeledonon plazaraino
- San Prudentzio kalea
- Eduardo Dato kalea, Espainia plazatik Manuel Iradier kaleraino
- Foru kalea, Ramon Ortiz de Zarate kaletik Alaba Jeneralaren kaleraino
- Arka plaza
- Diputazio kalea
- Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea
- Arriagako atea, Errementari kaletik Antepara kaleraino
- Probintzia plaza

Ordutegi hauetan:

- Azaroaren 1etik martxoaren 31ra arte, 13:00etatik 17:30era eta 20:00etatik 11:00etara.
- Apirilaren 1etik urriaren 31ra arte, 13:00etatik 17:30era eta 21:00etatik 11:00etara.

BIGARRENA.- Oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzeko baimena ematea —lehen puntuko mugarik gabe—, pertsonak eta salgaiak garraiatzeko bizikleta eta trizikloei nahiz mezularitza-lanetan dihardutenei. Ordenantzaren 12.1 artikuluan xedatutakoari loturik egongo da baimen hori.

HIRUGARRENA.- Dekretu honetan zehaztutako oinezkoen alderdietatik bizikletaz eta zikloz zirkulatzeko ordenantzaren 10.9 eta 23. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.

LAUGARRENA.- Gai beraren inguruan 2014ko urtarrilaren 31n emandakoa indargabetuko du dekretu honek, zein 2016ko martxoaren 1ean jarriko baita indarrean, udalaren web-orrian noiz argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 22an.

Alkate lehendakaria

Gorka Urtaran Aguirre

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código Seguro de verificación(CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA - NIF/IFZ P-0106800F		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguruak)</b> <i>CSV(Código seguro de Verificación)</i>	XF6C6IWLBYU243B3FU3TVDLBN4	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	24/02/2016 07:24:54
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>IZENPE.COM</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	2/2
 XF6C6IWLBYU243B3FU3TVDLBN4			